

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko uztailak 18

Usurbil, 24. Zenbakia



**Historiari aurpegia
garbitzen**

EZKONTZAK



Xabier Eizagirre Sagardia (Kaleberri)
eta
Idoia Urkizu Regidor (Orio)
(1997-06-28)



Patxi Pagola Goldarazena (Etxe-Aldia)
eta
Miren Agorreta Goenaga (Eguzkitza)
(1997-07-12)

HILDAKOAK



1997-6-25
**Jose Antonio Unanue
Eizagirre**
81 urte
Kaleberri

Jose Maria Martinez Manso (Puntapax kalea)
eta
Adela Castuera Merran (Donostia)
1997-06-28

JAIOTZAK

Nerea Telleria Portu
(1997-06-22)
(Puntapax kalea)



Usurbilgo Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria

3 4 5

usurbildar bazkide ditu
Noaua!-k
Zu ere egin zaitetz bazkide!



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

Zer irizten?

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua!
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,
37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa (943) 36 03 21.
e-mail:
Noaua.mandio@redestb.es

Zuzendaria: Olatz Altuna.
Kazetariak: Ainhoa Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.
Kolaboratzaileak: Pedro Mari
Matxain, Nere Amenabar, Ines
Kamino, Leire Atxega, Iñaki
Labaka, Iratxe Begiristain,
Begoña Zubiria, Amagoia
Mujika, Xabier Arregi, Pako
Agudo, Alfonso Vidal, Nieves
Aranburu, Luis Aranalde eta
Zalao Arnaiz **Administrazioa:**
Arantxa Usaralde, Aitor
Pikabea eta Nerea Kamino.
Erredakzio Kontseilua: Olatz
Altuna, Garikoitz Udabe, Jose
Jabier Furundarena, Iñigo
Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa: Susana
Martin. **Argazkia:** Joxe Antonio
Labaien. **Informatika:** Pili Liza-
so. **Banaketak:** Mertxe Jimenez,
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.
Sukaldaria: Joxe Mari Sarasola,
Tirada: 2.200 ale


Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza,
Industrialdea 1 - 2, 20.160
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

PORTADA: Kalezarko Sokorroko amaren ermitaren ondoan dagoen humilladeroa.



Abialdian, askatasunaren ibilaldia

Andres Bruño

1977an Usurbilgo alkatea

Datorren igandean "Askatasunaren Ibilaldia" iritsiko da Usurbilera. Beronek duela 20 urteko oroitzapen asko ekartzen dizkit, ibilaldi hau Euskadin ospatu zen lehengo aldi hartatik (1977ko uztaila).

Ibilaldi hau ekitaldi jendetsu batekin amaitu zen (milaka lagun geunden bertan) Iruñeatik gertu dauden Arazuriko zelaietan. Bertan egon ginen zenbait udalerritako alkate eta zinegotzi. Garai hartan gure herriak sufritzen zuen askatasun falta salatzen genuen abangoardiako taldea ginen.

Usurbildik zenbait autobus atera ziren Irurtzun aldera. Handik oinez joan ginen Arazuriraino zenbait zailtasunekin, izan ere, edozein manifestazio gogorki zigortua baitzen (garai zailak izan ziren haiek).

Espero dezagun piskanaka piskanaka egoera guztia normalizatzea eta hain desiratuak diren Pakea eta Askatasuna iritsi daitezen.



Pasa den maiatzaren 25ean, Bordatxo mendira igo ziren 40 usurbildar Abialdian-en deia jarraituz. Bertako gurutzean ikurrina jarri eta Abialdian-eko albumerako argazkia atera zuten.



TABERNA

Usurbilgo txilborrean
herritarren topaleku

Irazu kalea, 9
Tlf: 36 02 17



MAHUKA

GAZTE DENDA

Udako moda

zture eskueta



Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06

**EUSKO ALDERDI JELTZALEA
EAJ-PNV**

Gure herriak jasan duen uholdeak kalte handia egin du. Zenbait familiri etxea zeharo hondatuta gelditu zaio. Egoera larri honi aurre egiteko udaletxeak sei etxebizitza ditu. Gizarte laguntzaileen bidez etxebizitza hauek behar handiena duten familiei uzten zaizkie. Gure alderdiak jakin duenez bi familiei etxebizitza utzi zaie eta beste bati ukatu egin zaio.

Ongizateko arduradunaren erantzuna hauxe izan da:

"Larrialdietarako dauden bi etxebizitza okupatuta daude, beraz momentu honetan zure eskaerari ezin diogu aurre egin. Nahi genukeen bezela zure eskaerari aurre egitea ezinezkoa izatea sentituz, begirunez agurtzen zaitut, behar duzunerako zure esanetara jarritz".

Nola erantzun daiteke horrela

etxerik gabe gelditu den pertsona bati?

Nola erabaki dezake kontzejal batek nori eman edo ez larrialdietarako etxe bat?

EAJ-PNVkoek gai honekin kezkatu argibideak eskatu dizkiogu alkateari. Hamar egun igaro ondoren ez dugu erantzunik jaso.

Nola adjudikatu dira etxe hauek gizarte laguntzaileen txostenik gabe?

Zein irizpide erabili dira?

Zergatik hirugarren familiaren eskaera ez da onartu?

Zergatik ez zaie eskaini aukera hau beharra duten usurbildar guztiei?

Usurbilen, 1997ko ekainaren 25a.

Usurbilgo EAJ-PNV

ADI EGON!

Ekainaren 30ean (astelehena), goizeko 9etatik 10ak bitartera Kontzeju Zaharra kalean, Kutxaren ezkerrean utzi nuen apartakuta Peugeot 205-GTI gorria, SS-4166-AH matrikuladuna.

Handik hamar bat minututara kotxeak txoferraren aldeko atean izugarriko kolpea zeukan. Aurrealdeko kristalean, berriz, ustez jo zidanaren telefonoarekin papera. Segituan udaltzaingorengana jo nuen eta berriro kotxera bueltatzean beste paper bat zegoen bertan jo zidanaren matrikularekin. Aipatutako telefonora deitu nuen baina bertan ez zekiten ezer.

Inork zerbait ikusi bazuen, mesedez udaltzaingoarekin edo nirekin jar dadila harremanetan. Eskertuko nioke. Argi usurbildarrok; horrelako gauzak gertatzen dira munduan lapazorri asko baitago.

Beñat Atxega



Ba, bai, Santixabel eguneko salda eta lore banaketan ateratako argazkia da. Eguraldi txarra zela eta, Joxe Martin Sagardia plazan elkartu beharrean, frontoian bildu ginen, eta gosea, berdin-berdin. Hura harrapazka! Etxean jango ez balute ere... Noski, debalde den lekuan... Ondoren, Santixabel eguneko bazkaria ez dakit gosetuta joango ziren hauek! Ah eta arratsaldean, berriz, piperrak! Afaria ere dohainik!

PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia,6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)



**URTINEA
LORATEGIA**

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 22 55

N • U
Ileapaindegia

MISTOA
*Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura*

Aritzeta 2 - 2 1.A
Telefona: 36 19 51

Berriketan



IMANOL ZARAUTZ BENGOETXEA

"Troia" ezizenez ezagunagoa da 18 urteko gazte hau. Arotzgintza ikasten ari da, baina oraindik baserriko lanak egin, pelotan jokatu, bertsoak osatu eta lagunekin ibiltzeko denbora ere gertzen zaio gazte honi.



Zer moduz moldatzen zara baserrian?

Niri berez baserriko lana gustatzen zait, baina kontua da bertatik bakarrik ezin zarela bizi, horregatik ari naiz beste ofizio bat ere ikasten, beharrezkoa da.

Eta zer egiten zaizu gogorra?

Goizean jeikitzea. Batez ere astelehenetan, gai-nontzean hortik aurrera martxa hartuta daukazu eta nahiko mekanikoki egiten dituzu gauzak. Batzutan aitak biltzen ditu behiak, bestetan nik... beti gauza bera da. Badakizu bi egunetik behin hau egin behar duzula.

Zure lagunuen aldean, desberdintasun handia al dago bizitzeko eran?

Baserriak denbora kentzen dizu, eta aste egunean ateratzeko beta haundirik ez dizu ematen. Ez zara besteak bezain maiz ateratzen. Baina asteburuetan lasai ibiltzen naiz ni ere, lagunekin eta parrandan. Ostirala noiz etorriko zain egoten naiz aste osoa.

Pelotaria ere bazaitugu.

Zortzi bat urterekin hasi nintzen pelotan jokatzen. Duela gutxi Irunen jokatu dugu eta Zubieta plaza librean finalera iritsi gara jubeni mailan. Santiotan jokatu behar dugu, uste dut tolosar batzuren aurka. Inguruko herriko txapelketetan ere hartzen dugu parte.

Eta zein da zure bikotea?

Mikel Ibarretak aurrelari gisa jokatzen du eta nik atzelari moduan. Lehen Pakok entrenatzen gintuen eta orain Enrikek. Baina entrenamendu haundiena larunbat gauetan egiten dugula iruditzen zait.

Eta zeinek egiten du lan gehiago kantxan?

Berdintxu. Gertatzen dena da pelota ez dela futbola bezalakoa. Futbolean ekipo osoak gaizki jokatu duela esaten da, baina pelotan bi bakarrik daudenez, aurrelari edo atzelariaren errua dela esaten da.

Eta urduri jartzen al zara jokatzeo garaian?

Urte batzuk nahiko txarrak pasa genituen. Lau katu ikusi orduko pareta baino zuriago jartzen ginen. Baina orain hartu dugu patxara.

Zer ez zaizu gustatzen pelotatik?

Takoak jartzea. Niregatik ez nituzke ibiliko, baina behartu egiten naute jartzera eta...

Bertsolaritzan ere lehen pausoak ematen ari omen zara; Santixabel bertso lehiaketan hirugarrena izan zara.

Bai, iaz koadrilako bi lagun Bota Punttuban izena eman zuten eta ondoren nik ere bai. Hortxe aritzen gara nola edo hala puntua bukatu ezinik, baina ondo. Usurbil UEMAn sartu zen egunean ere gure lehen jendaurreko emanaldia ere eman genuen behintzat eta...

Zer ba, urduri?

Hasieran, jendea ikusi eta bihotza atera beharrean nuen. Baina bertsoa botatzen ari zaren neurrian, ustaldi ederra nabaritzen duzu.

San Juan eskean ere koplaka ibili zineten.

Bai, hantxe ibili ginen, baita ur haunditan sartu ere. Nahikari Gabilondorekin hasi ginen bertsoetan baina haren erantzunekin azkenean ixil-ixilik egon behar. Hala ere, oso harro gaude Sarasua eta Nahikarirekin kopletan ibili garelako. Baina bapatekoan oraindik "flojo flojo" nabil.

SERIGRAFIA
T A N P O G R A F I A

LOSU

Ugaldea poligonoa 36 - 2^a Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54



Igandetean ganba-ziri mundialak!

**TABERNA
JATETXEA**



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
TEL: 37 03 44
20.170 USURBIL

TXOKOALDE




**Iñaki
Labaka**

Errotarriak agertu dira Txokoalden

Uholdeek eragindako kalte-teen konpontze lanak aurrera darraite. Pasa den hamabostaldian **Goiko Errota** baserriaren ondoan zegoen zubia berriz eraikitzen ari dira. Horregatik, Urdaigara joateko bidea itxita dago. Ermitara joateko aukera ba-karra **Saltxipitik igo eta Aldatxa baserritik gora** joatea da.

Uholdeek bitxikeria bat ere utzi digute. Izan ere, presatik gora, mendian, **errotarriak azaldu baitira**. Aurkikuntza honen berri **Angel, Aldatxeoak** eman zidan. Uholdeak gertatu eta astebe-tera presa aldera joan zen eurijasek eragin zituzten kalteak ikustera. Lur jauzi ugari, salto ikaragarriak eta arri pila ugari, denak ere urak eka-riak, ikusten zebilela, hara non **Igartzabal** baserriaren **azpikaldeko errekan** errotarri bat topatzen duen. Hau tamaina haundikoa zen eta oso osorik zegoen. Hurrengo egunetan kaxkarragoak eta osatu gabeak ere aurkitu zituen.

Auzoko zaharren arabera



normala da horrelako harriak agertzea. **Andatza aldean**, antzinan **harrobi bat** omen zegoen eta bertan errotarriak egiten zituzten. Lehenago ere hor egongo ziren errotarriak, baina orain urak agerian utzi ditu.

Harria handik ateratzea ere pentsatu duten arren atzera egin behar izan dute. Mila kilo inguru ditu eta hortik ateratzeko beharrezkoa den ibilgailua igotzeko oso toki txarra dago. **Ikusi nahi duena joan dadila bertara!**

KALEBERRI



**Ines
Kamino**

Jubilatuen lokal berrirako lanak adjudikatu dira

Santixabelak joan dira. Hori da hori jendetza sei egun hauetan. Hala ere, festa ondorenean hustualdi ederra nabari da Kaleberrin. Utzi ditzagun festak alde batera, izan ere zenbait berri luzatu behar baitzikizuet.

Maiatzean, **Gaztañazpiko lokala jubilatuentzat** prestatzeko lanak adjudikatzeko lehia-keta ireki zela esan genuen. Lau eskaintza izan dira:


- Construcciones Labayen (24.470.387pzt.).
- Construcciones Sukia (24.322.334 pzt.)
- Construcciones Induxtel (22.371.498 pzt.)
- Vasco Europea de Construcciones (22.326.075 pzt.).

Azkenean, Gaztañazpiko lokala jubilatuentzat prestatzeko lanak **Vasco Europea de Construcciones** enpresari adjudikatu zaio, aurrez aipa-

tzen den diru kopuruaren aurrekontuarekin, hau da, **22.326.075 pezeta**.

Lanak laister hasiko direla espero dugu, hastea izaten baita okerrena. Behin hasiz gero azkar bukatu beharko dituzte lanak, **hiru hilabeteko epean** amaituta egon behar baitute.

Bestalde, uztaillaren 9an bisitari kurioso bat izan genuen udaletxe aurrean. Ez dakigu nondik irten zen, baina **erbinude bat** ikusi zuten bertan. Ez ikusi bakarrik, atzetik ibili, inguratu eta nolabait akatu zuen norbaitek. Irudietan duzue erbinude bisitari hori.



ATXEGALDE



**Amagoia
Mujika**

N-634an sartzeko bidea hobetu dute

Atxegalden jende gutxi dabil kaleetan, jendea oporretara joan dela nabari da. Hala ere, kontu hau alde batera utzi eta beste informazio bat zuenganatuko dizuet. Askok ikusi zuten N-634 errepidera irten nahiz bertatik ateratzeko zolua berritu dutela da nik esan behar dizuedana.

URDAIAGA



**Leire
Atxega**

Sanestebanen usaina gure sudurretan

Santixabelen ondoren Santio eta gero **Sanestebanak**. Gure auzoko jaietarako bi aste besterik ez dira falta. Aurten Sanesteban eguna igandean da eta jaiak ostiralean hasi eta asteleheneraino luzatuko dira (Abuztuak 1-4). Zer egongo den? Betikoa. Sanesteban egunean ohiturari jarraituz meza nagusiaren ondoren **zahagi bana-keta**, dantzariak, umeen eguna, oilasko biltzaileak, eta nola ez, gaueko dantzaldiak ezin falta.

Aurten ere **plater tiraketa** izango da. Abuztuaren 2an, larunbatean, egun osoan zehar tiro hotsak entzun beharko ditugu urdaiagatarrok. Goizean entrenamenduak egingo dituzte eta arratsaldean, berriz, txapelketa. Bestalde, puntako bertsolariak bilduko dira Andatzaren magalean: **Egaña, Lizaso, Mañukorta eta Iturriaga** hain zuzen ere. Gaueko dantzaldietan zein talde izango diren? Hori programan ikusiko duzue.



Gaiaz erabat aldatuz, **Puela berritu nahian** dabiltzala entzutera izan dugu. Oraingo, badirudi udalean eskaera hori egin dutela soilik, baserria eta txabola berritzeko eskaria hain zuzen ere. Ez litzateke txarra batere izango, iturritxo bat jarriko balute behintzat, ez horixe!

SANTUENEA



**Alfontso
Vidal**

Atalluko obrak eta bideko obren adjudikazioa

Atalluko obrak aurrera doaz piskanaka-piskanaka. Ingemarrek egin behar dituen pabeloiak direla eta aldaketa nabarmena izango



da Santuenera joateko bidean hemendik gutxira. Hasteko, gure auzora joateko kontuz ibili beharra dago, kamioiak baitabilza. Honez gain, **laister bide berria** egiten hasi behar omen dute.

Moyua S.A-ri adjudikatu zizkion Ingemarrek Atalluko lanak. Hauek lanean aspaldi hasi ziren eta urbanizazioarekin ere burubelarri ari dira. Urbanizazio lan horietan ordea, **bide berria** beharrezkoa da eta bide horri **egitea udalari dagokio**. Horregatik,

eraikuntza enpresa ezberdinei aurrekontuak eskatu zizkien:

-Construcciones Sukia
(32.786.778 pzt.)

-Construcciones Moyua
(31.280.683 pzt.)

-Construcciones Murias
(32.091.104 pzt.)

Udalak bide berriaren eraikuntza **Moyua S.A-ri adjudikatu** dio. Atalluko lanak egiten berak ari direla kontutan hartu behar da. Horrez gain, ekonomikoki eskaintza erakargarriena ere berena da. Beraz, badakizue, laister bide berria egiten hasiko zaizkigu, eta zaharra Ingemarrentzat izango da

AGINAGA



**Iratxe
Begiristain**

Aginagako emakumeak nagusi musean

Santixabelak jadanik atzean geratu direla ez dago dudarik. Baina pasa den uztailaren 2an (Santixabel eguna), aginagar bikote batek ez zuen paper txarra egin txoznetan ospatu zen Santixabel II. Mus Sarian.

Izan ere, gure auzotarrak diren Mari Angeles Arruti eta bere ama bigarren postuan geratu baitziren txapelketa honetan. Hauen aurretik, ordea, esperientzia haundiko pareta geratu zen: Florita Uranga eta Maria Luisa Karrera, hain zuzen ere.

Santixabel II. Mus Sari honetan 18 bikotek hartu zuten parte, beraz, ez da batere marka pattala gure auzotarrek lortu dutena. Zorionak!

Aintzinako altxorrak berreskuratuz

Datorren uztailaren 21ean hasi eta bi astez Aranzadi Zientzia Elkartek eta Kutxak gazteen-tzat udaran antolatu dituzten auzolandegietako batek Kalezarren dagoen Santutxoa berritu egingo dute.

Nahiz eta "humilladero" (lagrimero, negartoki, Santutxo e.a. ere deitua) honen ondotik makina bat aldiz pasa, gutxi gara bene-tan eliz eraikuntza honi berezi-ki erreparatu diogunak. Kalezarko Sokorroko amaren ermitaren ondoan kokatuta, bere egoera gaur egun ez da ona. Hala ere, barruan inoiz ez dira falta izaten loreak.

"Humilladeroa" ermita izate-ra iritsi ez den tenplu txikia da, guztiz itxia ez dena, gainera. **Fermin Leizaolak**, Aranzadi Zientzia Elkarteko lehendakari ordea eta elkarte bereko Etnografia saileko lehendakariak adierazi digunez, *"tenplu txiki hauek ez dute aterik izaten, ez eta eserleku edo belaunalkiak jartzeko tokirik ere"*.

Santutxoak ia beti "via crucis" edo gurutz bidearen amaiera izaten da, hots, kal-

barioa deitzen dena. Gurutz bakar batez edo eta hiru gurutzez osa daiteke. Gurutze hauek dira garrantzitsuenak, eta horregatik dute beraien-tzat eraikuntza berezi bat.

Deboziorako ezinbesteko tokia

Fermin Leizaolaren esanetan, *"humilladeroetan auzoko soroen bedeinkazioa egiten zen. Bestetik, hilerraren bidean geratzen zen kasuetan hilkutxa bertan jartzen zen, azken geldialdi bezala. Prozesioetan ere ezinbesteko geldialdia egiten zen humilladeroetan, eta azkenik, hainbat erromesen otoitz-leku ere izandakoak dira eraikuntza hauek"*. Gaur egun, ordea, erabilera hauek guztiak ia galdu egin dira.

XVII eta XVIII
mende artean
kokatzen da
Kalezarko
humilladeroa

Humilladero izenari dagokionez, ermita txiki hauek horrela deitzen dira, hain zuzen ere,

bertan herriak bere burua umildu egiten zuelako: *"gizakiak Jainkoaren aurrean apaldu egin behar du"*.

Humilladero mota desberdinak daude eraiki diren garaiaren arabera. *"Normalean XVII eta XVIII. mendeko humilladeroak oso landuta dute bai gurutzadura eta orokorrean eraikuntza guztia. Mende hauen aurretik egindakoak sinpleagoak dira. Bestetik, humilladeroetan gurutze bakarra edo hiru egon daitezke"*. Kalezarko santutxoa epe tarte horretan kokatzen da, eta hiru gurutzek osatzen dute tenplu txikia. Erdiko gurutzea beste bietatik nabarmendu egiten da, besteak baino landuagoa dago, apaingarri gehiago ditu. Alboetako bi gurutzeak ez dira osoak, hau da, ez dute gurutze forma, bi lapurren gurutzeak baitira.

Gazteek egingo dituzte berrikuntza lanak

Kalezarko humilladeroaren egoera ez da batere ona. Hori dela eta, Aranzadi Zientzia Elkartek berritzeko asmoa aurrera eramango du uztailaren 21etik aurrera Udalaren laguntzarekin. Berrikuntza hau 400.000 pezeta kostako zaio Udalari.

Konponketa eta txukuntze lanak Gipuzkoa osoko 16 eta 17 urte bitarteko gazteek egingo dituzte, Aranzadi eta Kutxa iaz antolatzen hasi ziren auzolandegien proiektuen barnean. Gazte hauetaz gain, Hezkide aisialdirako monitore eskolako bi ardura-dun, igeltsero bat, margolari bat eta Aranzadiko arkeologo batek ere parte hartuko dute lan honetan.

Juantxo Agirre, arkeologo



Gurutzeak garbitzeaz gain, kanpoaldeko hesia kendu egingo dute.

eta proiektu honetako koordina-tzaileak adierazi digunez, "lan honen helburua gazteak kultur ondarearen aurreko jarrera positibo bat lortzea da, bai eta lan hau egiteko beharrezkoak diren lanbide guztietako funtzionamendu eta triki-mailuak erakustea ere. Hauxe litzateke helburu tekniko, baina horretaz gain gazteen arteko elkarlana eta elkarbizitza bultzatu nahi ditugu auzolandegi hauetan. Azkenik, esan behar da Usurbildar guztientzat ondare historiko bat berreskuratu nahi dugula".

Epe barruan amaitzeko moduko lana

Auzolandegi hauek prestatzeko garaian muga haundiak daude: "Izan ere, kontuan izan behar dugu 20 gaztek 15 egunetan bukatu behar duten lan bat bilatu behar dugula; oso garrantzitsua da beraiek hasitako lana bukatuta ikustea. Aranzadik ondareen inbentarioa egin zuen duela urte batzuk, eta bertan agertzen den deskribapena ikusita Kalezarko humilladeroa auzolandegietarako egitasmo aproposa zela ikusi zuten. Zeren eraikuntza ez da haundia eta lan desberdin asko egin daitezke bertan: harria landu, egurra tratatu, harri-horma lanak egin...", azaltzen du Juantxok.

Hala ere, aurten izango da elizarekin zerikusia duen berrikuntza lan bat egingo duten lehen aldia. Orain arte trikuharrri, jauregi eta dorretxeekin lan egin dute. Kalezarko santutxoak ez da haundia, eta 15 egunetako epean hasi eta bukatu daitezkeen lana da. Ermita edo elizak konpontzeko denbora gehiago beharko litzateke.

Nahiz eta auzolandegietako



Humilladeroak egun daukan kanpoko hesia lapurrak ez sartzeko jarri zuten duela urte batzuk, baina aurretik inoiz ez zuen eduki.

proiektua nahiko berria izan, aurten lehendabiziko aldiz euskaraz egiteko aukera izan dute. "Auzolandegi elebidunean edo euskarazkoan izena emateko aukera eman zaie. Ez dakigu nola aterako den, baina hala ere euskara ez da helburu bat, eguneroko gauza baizik", dio Proiektuko koordina-tzaileak.

16 eta 17 urte bitarteko gazteek egingo dute lana

Bertan parte hartuko duten gazte eta arduradunak Agerialde ikastetxean jan eta lo egingo dute uztailaren amaiera arte. Goizez Kalezarren arituko dira lanean eta arratsaldean beste ekintza batzuk egiteko aukera izango dute. Hala nola, Usurbil eta Oriaitasada-rra ezagutzeko txangoa, arkeologia irteerak, astronomia saioak, orientazio ikastaroak...

Aurrerago aipatudugun eran, humilladeroari "aurpegia berri" egingo diote auzolandegiko gazteek. Horretarako, harlandu guztiak agerian utzi

eta garbituko dira, harri-hormak txukundu egingo dira eta egur guztia garbituko dituzte, besteak beste. "Hau guztia egiteko esku lan ugari eta ordu asko behar dira. Adibide bat jartzeko, egur guztia garbitu egin behar da, eta ondoren olio begetala eta haritz karea emango diogu. Produktu hauek naturalak dira, era honetan egurraren benetazko kolorea atera eta egurra renizaera errespetatuko dugu. Gainera, XVII eta XVIII. mendeko eraikuntza denez, garai honetako ezaugarria den kontrastea berriro agertarazi nahi dugu; jatorrizko ondar harria, karea eta egurraren artekoa".

Lan hauek guztiez gain, lapurrak ez sartzeko duela urte batzuk jarritako hesia kendu egingo dute, eta eraikuntza guztia inguratzen duen larrosa landarearekin beste horrenbeste egiteko asmoa dago, horrela eraikuntza guztia argi eta garbi ikusiko baikenuke. Azkenik, teilatua ere konponduko dute, eta azken ikutu gisa, lan guztia hobeto ikusteko, foko bat jarriko dute.

Idoia Torregarai

H erorrek esan



Arantxa Irazustabarrena

Kaleberri

Batez ere edarrietan.

Horrela giroan sartu eta hobeto pasatzen dituzulako festak. Gainera, dantza egiteaz aparte, hori da egiteko geratzen den ia gauza bakarra.



Eider Tapia

Atxegalde

Nik diru gehiena atrakzioetan gastatzen

dut. Gurasoek egunero ematen didate dirua festetan ibiltzeko, baina dena ez dut gastatzen. Hala ere, goxokiak ere erosten ditut paga horrekin.



Mikel Uribe

Kalezar

Edaten eta jaten, baina batez ere eda-

ten: garagardotan, eta tartetan "kubataren" bat edo. Festetan izugarri nabaritzen du poltsikoak honen eragina.



Karmele Martiarena

Kalezar

Atrakzio eta goxokietan

gastatzen dut diru guztia. Festa guztietarako ematen didate paga eta horrekin moldatu behar. Nahikoa izaten dut hala ere.



Ainara Uribe

Kalezar

Festetan diru gehiena

edarrietan gastatzen dut. Era honetan, gauean ateratzen zarenean animatu egiten zara eta giroa sortzen da.



Iñaki Mujika

Kaleberri

Autotxoketan eta autotxoketan.

Semea ezin da bakarrik ibili, eta aspaldian horrelakoetan ibili gabe egon denez, orain denak batera ari gara pasatzen. Zaldiko-maldiko guztietan ibiltzen da, egunero, egun eta gauez, eta ni ere bai berarekin. Dirua horretan joaten zaigu.



Arantxa Agirre

Kaleberri

Azkeneko festotan erakusketa batean

erositako pitxi batzuetan gastatu ditut sos batzuk, baina horretaz gain, normalean afaritxoren bat edo bestek eramaten ditu nire diruak.



Markel Olaizola

Kaleberri

Diru gehiena jan eta edanean joaten

zait. Eta erretzen ere bai. Asko nabaritzen da gastua festetan, izan ere zenbat eta ordu gehiago pasa kanpogan, orduan eta gastu handiagoa, noski. Eta gainera alabentzat paga ere gorde behar dugu.

J.M. Arzallus: "egungo bertsolariei txispa falta zaie"

Udarregi ikastolako irakaslea da bera. Goiatzen jaioa, txikitandik bertsoak gogoko izan ditu. Santixabel egunean ez zuen soka dantzan parte hartu, baina uztailaren 5ean, "Frontoiaren eraberriketa gaitzat hartuta, XXI. Santixabel bertso paper lehiaketako irabazlea... Joxe Mari Arzallus da" entzutean dantzan jarri zitzaizkion hankak. Hala ere, birritan pasa du esperientzia hau, iaz ere bera izan baitzen irabazlea.

Zer sentitu zenuen zu irabazle zinela entzutean?

Aurten lasaiago nengoen, ni nintzela irabazlea aurretik esan baitzidaten. Hala ere iaz oso gaizki pasa nuen, ezustean harrapatu baitzidan guztiak.

Erraza al da txapelketa baterako 10 bertso egitea?

Nik, bertsoak egiteko denbora asko behar dut. Iaz denbora gutxian egin nituen, gaia zein zen berandu jakin nuen, aste-bete edo hamar egun aurretik. Aurkeztea pentsatu, laupabost bertso moldatu nituen, eta azkenengo egunean, goiz osoa pasa ondoren osatu nituen hamar bertso. Aurten, **Noaua!**ren bidez lehenago jakin dut eta bertsoak moldatzeko denbora gehiago izan dut.

Nola egiten dituzu bertsoak, ba al duzu sekreturik?

Normalean, ideiaren bat eduki behar duzu. Gero, ideia horri, ni behintzat, forma bat edo balore literario bat bilatzen saiatzen nahiz. Askotan puntu guztiei balore literario hori ematea posible ez denez bete lana egiten da. Esate baterako, txapelketa irabazi duten bertso hauetan, burura etorri zitzaidan lehenengo forma azken bertso hiru

errenkak izan ziren: "A ze nolako frontonal, txapelak ere nafarroatik etorri behar du hona".

Gustora gelditu zinen bertsoak amaitu zenituen?

Ni gustora ez naiz inoiz gelditzen, ez naiz inoiz gelditu behintzat. Bertso hauetan lotu gabeko zenbait gauza badaude, behar-bada bertso gehiago beharrezkoak ziren, baina lan asko egin behar da horretarako.

Noiztik datorkizu bertsotarako zaletasuna?

Etxean beti izan da bertsotarako zaletasuna. Hasieran, bertsoak bakarrik irakurtzen nituen nire gogoz. 8 urte nituela aita zanak Luxia eta Gartziarenaren bertso paperak ekarri zituen peritik eta patrikan eramaten nituen beti. Gure etxean meza liburua ez zen liburu bakarra zegoen: Zapirainen "Genoveva Abravantekoaren bertsoak".

Bertsoak idazten, ordea, beranduxeago hasi zinen.

Bai, 13 urte izango nituen lehen bertsoak egin nituenean. Eskutitzak eta eskolan agindutakoa idazten genuen soilik, eta nik afizio bezala bertsoak egiten nituen etxean. Irakaslerik ez dut izan, nire kabuz ikasi dut bertsotan. Teknika arruntak entzun izan ditudan arren, aurrena azkenengo puntua pentsatu behar dela etab., bertsoak idazterakoan askotan honelako tekni-



Argazkia: Ekaitz

kak ez ditut erabiltzen.

Bertsolaritzaren egoera, momentu honetan ona dela esaten dute, baina ez al dago bertsolari gehiegi?

Bertsolarien inflazioa dagoela esango nuke nik. Bertsolari asko dago, baina bertsogileak dira asko. Bertso eskoletan sortu diren zenbait bertsolarik bertsoa egiten ikasi dute, baina bertsoari grazi gutxi ematen diote. Teknika jakin arren, bertsoa txukun osatu arren txispa, esamolde biziak falta zaizkie. Ni bertso saio askotan aspertu egiten naiz. Hor dabilzan askok idatziz probatu behar lukete.

Bertsotan bapatean hasiko bazina...

Behin probatu nuen eta gehiago ez dut probatu. Ez dut bapatean aritzeko gaitasunik, bapatean bertsoak botatzeko ni baino azkarragoa izan behar da.

Ohorezko soka dantzak txalo beroak jaso zituen

Santixabel egunean hauek baino urduriago ez zebilen inor. **Udarregi ikastolako irakasleek** ohorezko dantza soka dantzatu behar zutela eta, jende asko bildu zen frontoian. Eta ikuskizuna eskaini ere, eskaini zuten bai: bat hankak asko altxatuta, beste erritmoa eraman ezinik, beste txapela kentzea ahaztuta, ikaragarritzko saltoak eginez ere bai... baina denak umoretsu eta irrifarrez. Horrela atera zituzten **herriko beste irakasleak** ere bukaerako fandango eta arin-arina egiteko.

Gero... besteok ez genuen ikusi, baina hamaiketako ederra egin omen zuten lasaitzeko!



Diana alternatiboa eta entzierroa



Uztailaren 4an, goizaldean, ez zen giro izan. Alde batetik oilasko biltzaileen irteera, suziriak eta trikitixa hotsa edonon. Beste aldetik, txistularien dianari itxaron nahi izan ez zionik izan zen. **Goizeko 7.00ak aldera**, ikurrina eta arrano beltza hartu eta kantari Kaleberriko kaleetan ibili ziren kantuz diana joz. Bat baino gehiago esnatu zen "**diana alternatibo**" honekin. Hala ere, gaitzerdi, gero txistulariekin esnatu beharrik ez. Ondoren, San Ferminei aurrea hartuz, **entzierroa** ere egin zuten, Eusko Treneko autobusarekin. Ez ziren bakarrak izan, 24 ordu beranduago Pesaren entzierroa izan baitzen.

Giro aparta frontoiaren inaugurazioan

Santixabel egunean inauguratu zen frontoia. Horretarako, bi pelota partidu ikusteko aukera izan genuen. **Ibarreta/ Kastresana** eta **Izagirre/Zarautz** usurbildarrek partidu polita eskaini zuten, azkenean lehenengoak irabazi zutena. Bigarren partidua hasi baino lehenago, alkateak, **Joxe Antonio Altunak**, ohorezko soka egin zuen (estilo haundiz) eta Kultura zinegotzia den **Kerman Errekondok** nola edo ahala eraman zuen errestoa. Ondoren, **Alustiza/Errandonea** (gorriz) eta **Unanue/Elkorok** (urdinez) jokatu zuten. Bigarren bikotea iritsi zen lehendabizi 22. kartoira, baina azkenean 25 tantutara jokatu zuten, eta oraingoan gorriek irabazi zuten. Giroa behintzat ez zen falta izan ez kantxan eta ez kanpoan ere.



BARATZA
FRUTADENDA

Aukera zabala
zure eskura

Eguzkitza, 4 USURBIL
Tlf. 36 49 81

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

20170
USURBIL

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 37 10 42

43 HERRITAR ODOLA EMATEN

Pasa den Uztaillaren 7an Usurbilgo **Odol Emaleen Elkarteak odola emateko deialdia luzatu** zien usurbildar guztiei. Deialdi honi erantzunez, **43** herritar hurbildu ziren anbulategira eta hauetatik **hiruk lehen aldiz** eman zuten. Nahiz eta azken urteetako joera gero eta emaille gutxiago egotea den, badirudi oraindik emailleen batzbestekoa mantentzen ari dela. Odola eman ondoren ematen duten meriendagatik izango ote da?



Uztaillaren 1eko gaueko 12etan eta eguraldi pattalarekin, alkateak Santixabel jaiei hasiera eman zigun udaletxeko balkoitik usurbildar guztioi festa zoriontsuak opaz. Jarraian, Senideak taldeko kide batek euskal presoen egoera azaltzen zuen manifestua irakurri zuen, eta segidan **Patxi Añorga preso ohiak ikurrina** mastaren azken muturreraino igo zuen, festei hasiera emanaz. Ondoren, ohitura denez, danborradak hartu zituen Usurbilgo kaleak. Danbor hotsek, beraz, estreinatu zuten frontoi berria festetan.

XABIER TABERNA IRABAZLE

Xabier Taberna da azken bi hilabeetan jokoa izan den areto futboleko txapeldun berria. Uztaillaren 5ean jokatu zen finala, eta usurbildar hauek 5-2 irabazi zieten **Txirpi Jatetxea** taldea osatzen zuten Lasarteko jokalariei. Neurketa honen aurretik hirugarren eta laugarren postua erabakitzeko partidua jokatu zen. **Usurbil Optikak** 4-3 irabazi zion **Intringulis** taldeari. Guztira 16 talde aritu dira lehian, aurrena Santuenean eta Oiarde kiroldegian gero.



Santixabeletan parranda eta jai giroa nagusi izan bada ere, batzuk beste zeregin batzuek egiteko aprobeztatu dute denbora hau. Izan ere, aste honetan zehar **zenbait lapurreta gertatu** baitira herrian. Kotxe bat, moto bat eta kotxeko kaseta lapurtu dituzte, eta uztaillaren 4tik 5erako gauean gure aldizkariko lokalera ere sartu ziren leihoetako barrak kendu ondoren. Zoko guztiak ederki miatu zituzten.



Santixabel bezperan ezusteko bisitariak izan genituen. Pilotalekuan **Hamar Drag Queen** azaldu ziren goizeko ordubiak aldera. Ez dakigu nongoak ziren, ezta nondik zetozen ere, baina takoi gainean ibiltzeko izaugarritzko abilezia zuten. Jakin dugunez lehenago etortzekoak ziren, baina azken orduko arazoren batzuk izan omen zituzten. Hori bai, gero ez zuten etxera joateko presarik izan.

ALDIA

KIROLAK - OPARIAK
 1997ko uztaillak 18
 ATYEAGA-ALDE 10. Tlf: 36-85-42

Elkaitze

Bideo eta Argazkia

Usurbil tlf 36 14 87 oiartzun

ARRAINDEGIA
PELLO

Arizeta Kalea, 1
 Tlf 36 21 64
 USURBIL

Usurbildar bat Gipuzkoako sega txapelketan

Joxe Jabier Urdangarinek 24 urte ditu. Bizkarre base-
rrian bizi da eta uztailearen
20an Gipuzkoako segalari txapelketan parte hartuko du. Larraitzko zelaian, arratsaldeko 6.00etatik aurrera lehenengo bi postuetan sailkatzen saiatuko da usurbildarra. Hala izanez gero, abuztuaren 3an Respaldizan (Arabian) Euskadiko txapelketan aritzeko txartela lortuko luke.

Txiki-txikitatik sega izan da bere afizioetako bat. Etxean senideak behin baina gehiagotan ikusi ditu belarra moztzen, eta urteetan zehar segarekiko afizioa haundituz joan da. **Joxe Jabier Urdangarinen** esanetan, *"gaztetan belarra ebaki nahi izaten nuen baina aitak ez zidan uzten. Badakizu, sega ez ikuitu, min hartuko duzu eta; horrekin ez jolastu ebakia egingo duzu eta; horrelakoak behin eta berriz entzuna nahiz"*.

Orain dela hiru urte, ordea, serio xamar entrenatzen hasi zen. Iaz Gipuzkoako txapelketa lortu zuen "Etxetxo"rekin harremanetan jarri ondoren prestaketa lanari ekin zioten



1994an. *"Garai hartan nik segan egiten nuen baina ikasleko asko neukan. Hiru urte hauetan bere ikaslea izan naiz, belarra nola moztu, zer posturak hartu ikasten jardun nahiz denbora horretan"*. Entrenamenduak egin bai, baina txapelketetan ez du parte hartu. Izan ere, segalariak belarra ebakitzeaz gain, sega zorroztu ere egin behar zuen, eta berak ez zekien sega zorrozten.

Aurten, ordea, arauak aldatu dituzte. Txapelketan, segalariak belarra ebaki behar

dute, sega beraiek zorroztu beharrik ez dute, horregatik Gipuzkoako txapelketara aurkeztea erabaki zuen Joxe Jabierrek.

Belarra ebaki, korrika egin eta gimnasioan aritu

Txapelketan parte hartzeko erabakia hartu zuenetik gogor ari da entrenatzen. "Korrika ibili, gimnasioan pesak egin eta belarra ebaki izaten da nire entrenamendua. Txapelketan ordubete egin behar dut belarra moztzen; oso gogorra egiten da ordubeteen jo eta jo, gelditu gabe aritzea. Horregatik, fisikoki ondo egotea garrantzitsua da".

Bere helburu nagusia bi lehenengoetan sailkatzea da. Lehenengo txapelketa izanik, bere etsai nagusia urduritasuna izango dela argi dauka. *"Ni lehenengo aldiz irtengo nahiz plazara, beste lau aurkariak, berriz, esperientzia dute. Hala ere, urduritasuna alde batera utzi eta ahalik eta lanik txukunena egiten saiatuko naiz. Bi lehenengo postuetako bat lortzen badut, ederki; ez badut lortzen ixil-ixilik etxera"*. Lortuko duen hala ez? Datorren alean jakingo duzue.



Txistulariak: "betikoak", baina betirako?

Orain dela 30 urte inguru entzun ziren herriko txistularien doinuak lehenengo aldiz. Urtez-urte Usurbil eta bere auzoetako jaietan ibili izan dira; neguan kaikua jantzi-ta hotzari eta euriari aurre egiteko, eta udan alkandora txuria soinean.

Hasierako urte haiek **Roman Manterola, Iñaki Mujika, Ana Maite Orbegozo, Arantxa Aranburu eta Iñaki Zugastik** ondo gogoratuko dituzte, beraiek izan baitziren txistua jotzen hasi ziren lehenak. La Salleko ikastetxeko **Anjel hermanoarekin** (Ignazio Azpiazu Sudupe) ikasi zituzten lehenengo piezak.

"1968. urteko Santixabeletan irten ginen lehenengo aldiz kalera. Dianak kalejirak jo genituen eta kobratu egin genuen, gainera" gogoratzen du **Iñaki Mujikak**. **Felix Aizpuruak** 2.000 pezeta eman omen zizkien eta dema plazako harrian egin omen zuten zatiketa seiren artean: bakoitzak 333 pezeta.

Urtean zehar ere jarraitu zuten entsaioak egiten eta La Salleko dantza taldeari jotzen ere hasi ziren ondoren. La Salletarrak alde egin zutenean **Anjel Aranburu "Kartero"rekin**

jarraitu zuten. Ondoren, **Ramon Udaberekin**. 1972. urteko kontuak dira hauek.

Juan Kruz Atxegak hartu zuen taldea gidatzeko ardura ondoren eta 1985 bitartean taldea asko hazi zen. 20 lagun bitzera iritsi ziren: "beternoak", gazteagoak eta hasi berriak. Betidanik talde gisa funtzionatu izan dute eta giro ona izan da beraien artean. Ohiturari jarraituz festetan ateratzen ziren, baina aparteko kontzertuak ere eskaintzen zituzten gabonetan, Santa Zezili egunean, urteberritan... Irrii abesbatzarekin batera beste herrietara ere ateratzen ziren.

Gaur egun ere bide beretik jarraitzen du **Usurbilgo Txistulari Taldeak**. Herriko festetan, egun berezietan eta ekitaldi desberdinetan parte hartzen du. Urtean zehar pare bat kontzertu ere ematen dituzte eta inguruko herrietara ere joaten dira: Oiartzun, Hondarribia, Orereta, Tafalla, Billabona...

Hala ere herrian kontzertuak ematea ez dela erraza diote



Ezkerretik eskuinera eta goitik behera: Roman Manterola, Arantxa Aranburu, Karmentxu Goenaga, Iñaki Mujika, Ane Maite Orbegozo eta Iñaki Zugasti

taldeko kideek: "Alde batetik ez dago leku egokirik, horretarako prestaturik. Kalean jotzen badugu ere, megafonia arazok sortzen dira". Bestetik jendearen interes eskasa aipatu dute: "ilusio osoz prestatzen ditugu piezak eta jendearen aldetik jasotzen dugun erantzunak benetan gogoak zapuzten dizkigu". Eta ez kontzertuetan soilik, festetan ere...

Momentu honetan 14 txistularik osatzen dute **Usurbilgo Txistulari Taldea** eta ez dirudi kopuru hori asko haundituko denik. Urte batzuetan taldea hazi egin bazen ere, gaur egun ez da horrelakorik gertatzen. "Erreleborik ez dago eta jende gaztea ez da animatzen".

Txistu taldeko kideek aurrera jarraitzeko asmoa daukate, baina beharrezkoa da jende gaztea ere sartzea jarraipen bat izan dezan. "Badakigu gaur egun Zumarte Musika Eskolan instrumentu gehiago ikasteko aukera dagoela, baina herriko jaietan, dantzarekin, ekitaldi desberdinetan... txistu doinuak gustora entzuten ditu jendeak, eta merezi du horretan jarduteak".

Ainhoa Azpiroz



Askatasunaren Ibilaldia 20 urte ondoren

Orain dela 20 urte lehenengo Abialdian milaka lagunek 1877 kilometro egin zituzten, besteak beste, amnistia eta autonomia estatutua eskatuz. Haren lekukoa hartuz, Abialdian, Askatasunaren Ibilaldiak ekainaren 29an Iruñean ekin zion bere bideari. Uztailaren 25 arte Euskal Herriko herri askotan askatasunaren mezua zabalduko du etengabe, "geure geroa eraikitzeko eskubidea" hain zuzen ere. Gure herria ere horren lekuko izango da, uztaillaren 20an pasako baita bertatik.

1977ko udara zen. Uztaillaren 10ean lau adarretan banatuta abiatu zen Askatasunaren Ibilaldia. Euskal Herrian zehar amnistia osoa, euskal nortasun nazionalaren ezagutza, erabateko autonomia eta indar errepresiboen desegitea eskatzen zuen errebeindikazio ibiltari hark. Lau adarretako batek Zarautzen eman zituen lehen pausoak. "Erribera" adarra Zarautzen hasi, eta Orion barrena Usurbila iritsi zen, uztaillaren 10ean Donostiara bidean. Bi mila ibiltari inguru omen ziren Usurbilen.

Usurbilgo udala Askatasunaren Ibilaldiarekin

Baina Abialdianen istorio guztia ez zen han amaitu. Askatasunaren Ibilaldi hau Iruñean amaitzen zen abuztuaren 28an. Abuztuaren 23an, ordea, "67 alkate euskaldunen taldeak" bilera egin zuen



Maiatzaren 25ean usurbildarrak ikurrina jarri zuten Bordatxon. Uztaillaren 20an herritik pasako Askatasunaren Ibilaldia.

Bergaran, eta bertan izan zen **Andres Bruño Urdanpilleta** Usurbilgo alkatea. "Amnistia osoa eta Autonomia Estatutua" aldarrikatzea erabaki zuten, horretarako Euskal Herri osoa Askatasunaren Ibilaldiaren amaieran, Iruñean egingo zen konzentrazioa gonbidatuz.

Abuztuaren 25ean Usurbilen udal batzarra egin zen. Bertan "67 alkate euskaldunen taldeak" aldarrikatutakoa onartu eta usurbildar guztiak, beren askatasun desioa agertzeko, Iruñean egingo zen konzentrazioa gonbidatu zituzten. Udalaren adostasuna erabateko izan zen, Iruñeara joateko konpromezua hartu zuen eta haruntz joan ziren bi autobusak ere ordaindu zituen.

Aurten, 20 urteren ondoren, Askatasunaren Ibilaldia martxan da berriz ere. Ekainaren 29an 1977ko martxa hartan parte hartu zuten lagunek eman zioten hasiera Abialdian eta 27 egunetan Euskal Herriko txoko ugari bisitatuko ditu, uztaillaren 25ean Gernikan amaituz. Oraingo honetan, garai bateko lau helburuak bateratu dituzte, "geure geroa erabakitze eskubidea" lemapean. Herrietan 1977ko batasun giroa eta amets egiteko giroa berpiztea da antolatzaileen nahia.

Usurbilen ere pasako da Askatasunaren Ibilaldia. Duela 20 urte Zarautzik Donostiara zihoan, oraingoan Donostiatik iritsiko zaigu. Noiz? Uztaillaren 20an.

xabier
edaritegia

Pintxo aukera bikaina
Gosari bereziak

Egin zaitez bazkide!
Noaúa!

Lehiaketa



Santixelak bukatu arren **Maria Azkonbietak** afaritan jarraitzeko aukera izango du. Hain estimatuak diren kroketak jateko aukera izango du **Bordatxon** eta baita zerbait gehiago ere. Berak aitortu bezala *"ilusio haundia egin dit eta denbora asko baino lehen hemen izango naiz"*. Aprobetxatu eta ondo afaldu!

Zer, ondo ibili al zarete festetan? Eta buruhaundiak, ikusi al dituzue buruhaundiak? Eta kontatu? Makina bat buruhaundi ikusi ditugu guk, batzuk haurren atzetik korrika, baina beste asko eta asko lasailasai parrandan. Denak zenbatzea ezinezkoa egin zaigu, eta erantzun guztiak ontzat hartzea erabaki dugu.

Guztien artean, **Arrate** jatetxeko afaria **Eider Tapiari** egokitu zaio. Oporrak hasteko ezin hobeto!

Opor garaia iritsi da, eta lasaitzeko unea ere bai. Patxadan jarri eta denborapasa bazaude, entretenitzeko letra-zopa honetan hondartzan erabiltzen diren bederatzi gauza topatuko dituzu.

A L E P A X T D E T N Q I U M A P W
 D L I K E I P Q I U K Z I T K I M U
 K L A M S E T O K E P Z T G A Z O P
 L E Z P T M O E B O H X O W O T E Z
 Q R W X I U Z T O E A E Q J K N K U
 Q U K I T I O P E N Z I P I E A A Z
 A U I O X E N B K T U I E M R J E P
 O Y I O A E P L Q O Z E T M R U I P
 B I S X T I E N O A U A P Q U N T I
 U I O E L T K E K E L K M P A I I T
 K E K U A E M E I A T P E L T A B Z
 S T M K O U M O A Ñ Q M O P E B T M
 E M T E O M N Ñ Q B E F G E B L I F
 K O L O T E N P E A L I A O T Z I U



Zaloc Arnaiz

ORBELDI
 MARKEL OLAIZOLA
 ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009

GENERALI
 Aseguru Konpainia

Mota guzietako Aseguroak zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
 20170 Usurbil (Gipuzkoa)

TXIRIBOGA
 TABERNA
 pintxoak eta bokatak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

kalezarra
 karrozeria

Txapa konponketa eta kotxe pin...

Ugaldea industrialdea
 USURBIL Tel. 37 26 09

UZTAILAK 18 ostirala

- **Gure Pakea Zahar egoitzak Izabara** irteera antolatu du. Autobusa udaletxe aurretik aterako da, goizeko **8.00**etan.

UZTAILAK 20 igandea

- **Abialdian**-eko martxa gure herriko kaleetan zehar pasako da eguerdi aldera. Hori ospatzeko, **herri bazkaria** antolatu da 14.00etan frontoian.

UZTAILAK 21 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.

OHARRAK

- ✓ Datorren **uztailaren 19** eta **20**an **Andatza Kirol Elkarteak bizikleta irteera** antolatu du. Urbasara joango dira.
- ✓ **Abialdian askatasunaren ibilaldia** Usurbildik igandean pasatzen dela ospatzeko herri bazkaria prestatu da. Txartelak Aitzaga, Txiriboga eta Bordatxo tabernetan salgai egongo dira 1000 pezetatan.
- ✓ **Laruzko kartera bat** aurkitu da Udarregi zaharrearantz antolatu ziren dantza ikastaroen artean. Etumeta euskaltegitik pasa dadila.
- ✓ **Butanozko sukaldea** edo **hozgailu zaharra** bota behar bal-



Hileko azken ostiraletan egiten den bezala, **Senideak**-ek datorren **uztailaren 25**erako **manifestazioa** antolatu du, arratsaldeko **20.00**etan.

din badituzu, guri deitu:
36 20 88

- ✓ **Telefono-fax berria** saltzen da. Deitu 36 59 75 telefonora. Gaeuz.
- ✓ **Usurbilgo Jarrai** eta **Amnistiaren Aldeko Komiteak** antolatutako **errifan 1681**. zenbakia atera da garaile.
- ✓ **Umeak zainduko nituzke udan**. Deitu 36 66 39 telefonora.
- ✓ Kiroldegiko saunan edo inguruko geletan 2 zintzilikariodun **kate bat** eta **2 pulsera** galdu nituen, bata Ana Isabel izenarekin. Norbaitek aurkitu baditu deitu iluntzetan **360002** telefonora.
- ✓ 10-12 tailako **errealeko txandala** hartuko genuke erregalatuta edo bestela merke erosi. Deitu iluntzetan, **360002**.

LANPOSTUAK

- ☛ **Irungo Udalak udaltzainak** behar ditu. Eskerak aurkezteko epea **uztailaren 18**an amaitzen da. Informazio gehiago Irungo Udalean edo GA Oren 116. zenbakian.
- ☛ **Gipuzkoako Foru Aldundiak Hiri kalitatea kontrolatzeko erdi mailako teknikariak** behar ditu. Eskerak aurkezteko epea **uztailaren 29**an amaitzen da. Informazio gehiago Gipuzkoako Foru Aldundian edo GA Oren 123. zenbakian.
- ☛ **Aramango Udalak eginkizun anitzeko Poeraria** behar ditu. Eskerak aurkezteko epea **uztailaren 30**ean amaitzen da. Informazio gehiago Aramako Udalean edo GA Oren 124. zenbakian.
- ☛ **Astigarragako Udalak delinante bat** behar du. Epea **abuztuaren 1**ean amaitzen da. Informazio gehiago Astigarragako Udalean edo GA Oren 127. zenbakian.



BAZKARIE TXARTELAK

5000 PEZETA URTE OSORAKO

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

H A M A B O S T E K A R I A
Noaua!



-1-

Xumetaren zeramika,
usurbildarron ohore;
lurra goxaz eta margoaz
gizonak osatu lore.
Arrotz guztiei eskaintzen die
gure agurra dotore.
Aurten neguan utzi ziguten
ez lore ta ez kolore

-10-

Txoraturik ni askotan
zuri so nauzu egona.
Zure bi horma zaharrek
badute estali ona.
Guzti-guztia zaharberitu...
Aze nolako frontona!
Txapelak ere Nafarroatik
etorri behar du hona!

-9-

Ikusi gabe nengoen
kanpotik frontoi apainik.
Baina horra Usurbilen
horma zeramika eginik;
lehen atzea, orain albo...
bada hor kolore finik.
Babilonian zintzilik ere
ez zen holako jardirik.

-2-

Mila bederatzirehun
larogeita hamazazpi.
Otsaila. Lekukoak,
bideo eta argazki...
Bi mamutzarrek honi eraso.
Dimnosaurio? hegazti?...
Gure frontoia askatu zuten
bai sapaia eta bai azpia.

Hauexek dira
Santixabel bertso
paper lehiaketaren
XXi. edizioan garaile
atera diren bertsoak.
Joxe Mari Arzalluzek
idatziak dira.
Guztira bost partaide
izan ziren.

-8-

Egitura lasai hori
norbaiti zitaion otu.
Kargak iraun dezan txintxaz
azpia diote lotu.
Lehengo lekua hazi egin da
argia areagotu.
Eta tertuli zaleentzako egon-
giroa berotu.

-3-

Gruatzarrak maneiatzen
bazen hor esku abilik.
Berehala geratu zen
inguru guztia hilik.
Begien bistan utzi zituzten,
errukarri eta soilik,
bi horma zaharrak murala zaintzen
zutik eta ixil-ixilik.

-7-

Estalitan pinua du
eta Landeetan hazia.
Asko landutako zura.
Egitura berezia.
Begira gora, koloreak du
argizaiaren bizia.
Hainbat zerbitzu egin duenak
hau du ondo merezia.

-4-

Lehenengo lana azpian
zapata sendoak jarri.
Ormigoia ta burnia
sartu zioten oinarri.
Ezker hormako pitzatu denak
beren onera ekarri.
Frontisa berriz osatu zuten
behetik gora harriz harri

-5-

Eskubitako burniak,
dena libratzeko, kendu.
Ezkerretara eraman;
entramatuan mantendu.
Eta bi zutoin luze eginik,
sapaia berria atondu,
hormak zaharrak ikutu gabe.
Palioa ematen du.

-6-

Iparraldeko paretak
ez du faltako azalik:
alde bietan ez dauka
forratu gabe atalik.
Oriotarrei ateak itxi,
ez dadin sar mendebalik.
Eki-hegoak utzi zaizkio
argiarentzat zabalik

ARAETA SAGARDOTEGIA - JATETXEA

Festa zorion-
tsuak
zubiatar guz-



*Eguneko menuak
Bataioak, jaunartzeak eta ezkontzak
Negozio bazkariak
Sagardotegia urte osoan zabalik*

eta udan...
kanpoaldeko terraza
eta parkea

Arbitza bidea. Zubieta ☎ 36 20 49

Egin zaitez bazkide

Noqua!!